





II Urtea

1920'ko Otsailla

XIV Zenbakia



## ANGERUAK



*Qui facis angelos tuos spiritus (Ps. 123,4)*

*Zure aingeruak gorputzgabe egiten dituzuna.*



RISTAU ikasti edo dotriñak ezpadu ere itz-egiten Aingeru-en sortzeaz, ezta ere gizonarenaz; onen eroria ta Jaungoikoa gizon egitearen bearra obeto adirazteko, oiek bietaz nai di-zut itzegin aurretik. Gaur, Aingeruaz.

¿Nor dira? Beren izenak esan nai du albistaria edo mandataria; Jaungoikoak ortarako bialdu ditualako gure ar-tera ikusi diran alditan. Aingeruak dira Jaungoikoaren aur ezagueradunak eta beren izatez gorputz gabeak. Espirituak edo gogoak deitzen ditu Pablo deunak, gorputz gabeak (Greg. Naz.) Gu ezagueradun gorpuztunak gera izatez, aiek gorputz gabeak. Gure begietan agertzeko artzen dute gorputz itxura; ala artu zuan Tobias'eri lagun egin zionak; Jesus' en illobi edo sepultura ondoan agertu ziranak; baño itxurazko gorputza bes-terik etzan beraiena, etzan inñola bere izatearekin bat egiten dan gorputza.

¿Noizkoak dira? Moises'en Jenesis'ko lenengo itzetan: Asieran Jaungoikoak ezerezetik atera zituan zerua ta lurra, itz oietan, Elizak S. Pablo'

ren ondotik aingeruak aditzen ditu. Onek esaten du: ezerezetik egin zituan ikusten diran eta ezin ikusi diran gauzak. Elizak dio berriz: (C. Vatic. 3. 1.) Asieran ezerezetik egin zituan Jaungoikoak izate gorputz gabe ta gorpuztunak. Argatik esan dezakegu Jaungoikoaren eskuetatik ateratako lenengo aurra dirala Aingeruak. Job santu edo deunak deitzen ditu gauzen sortu-eguneko goizeko izarrak. (Job. 38,7)

### **Asko al dezakete?**

Agustin deunaren ustez izate guztiko gauzik bikañenak dira Aingeruak. Gizonak baño ezaguera askoz ere aundiagoa, argiagoa ta erraxagoa dute; begiraldi batean ezagutzen dute gizonak neketan ezagutu dezakena. Gizonaren aldean asko dezakete. Gau batean ito zituan Aingeru iltzaleak Ejipto'ko lenen jaio guziak. Beste batek *berreun milla* gizon galdu zituan Asiriarren soldadutzan gau batean. Babilonia'ko labeen suari etzion utzi batek iru gazteai miñik ematen. Aidean eraman zuan Abakuk Iragarle santua Daniel zegon leoi'tegira. Lurra dardaratu zan Aingerua Jesus'en illobi gañera jeixtean.

### **Zertarako egin zituan Jaungoikoak?**

Jaungoiko beraren gorapiderako, bere aurrean gorantza ta alabantzaz gau ta egun aritzeko. Ala ari dirala agertzen zaigu liburu santuetan; ala ikusi zituan Daniel'ek (Dan. 7, 10.) milleka berari lagun egiten eta bere aurrean zebiltzala.

Jesus'ek esan du Ebangelioan aurrean Aingeruaz: beren aingeruak beti ikusten dute Aitaren aurpegia, Jaunaren aurpegi aurrean gañera eskeintzen dituzte gizonen otoitzak. Ala ikusi zuan Juan Deunak, Aingerua ari zala Jaunaren aurrean intzensua bezala gogo onekoen otoitzak eskeintzen. Tobias'en Aingeruak esan z'ion, nola berak eraman zituan Jaunaren aurrera bere eskeak, baita ere Daniel Igarle santuari bereak.

### **Aingeru onak**

Jaunak aingeruak egitean ontasunez ta esker edo graziaz beteak egin zituan, edo berdin dana oso atsegingarriak bere begietan. Baño Jaunak iñori ezti eman nai betiko zorionaren saria, lendik bere zintzotasuna ikusi gabe. Argatik aingeruena ere ikusi nai zuan beti-betiko zorion tokian erabat sartu baño len. Zer agindu zien Jaungoikoak beren zintzotasuna ezagutzeko ezta kigu, baño bai burruka gogorra izan zutela batzuek besteakin eta geienak Jaungoikoaren alde atera zirala Migel guztien buru zala. Auek ordutik betiko gozategian sartu ziran. Eta nora nai joan berekin deramate zeruko gozamena.

### **Aingeru galduak, deabruak**

Auek dira aingeruen arteko burruka artan betiko zeruko lekua galdu zutenak eta katez loturik, betiko sutara, tximista batzuek bezala Jaungoikoak bota zituanak ango sutan beti erre ta kixkaltzeko. Onek eztu esan nai eztirala infernutik ateratzen. Atera egiten dira, baño berekin deramate norai ango su-garraren samintasun guzia.

Berez asko jakiñak eta asko dezaketenak dira; baño Jaungoikoak lotu-



Praedicate Evangelium...

*J. Roig'en Argirudia*

rik dauzka, ez egiteko gizonari, erraz egin lezakioken kaltea. Job deunari kalte egin nai zionean, eskatu bear izan zion baimena Jaunari, lena bere gauzak galtzeko, gero bere soñean ukitzeko ta gaitza emateko. (Job. 26.)

Zakur katetua bezela loturik dauka Jaunak guri gauz gaixtorik ere ez eragiteko, guri ez zirikatzeke edo erasotzeko, gure indarraz ta Jaunaren lagutzaz garaitu dezakegun baño geiago.

Satanas'ek eskatu du baimena zuk garia bezela aizatzeke, esan zion Pedro'ri Jesus'ek. (Luc. 22, 31).

Baita gizonaren gauzetan ere eztezake deabruak kalterik egin Jaunaren baimenik gabe, txerritan sartu nai izan zuenean Jesus'eri eskatu zioten aurretik baimena. (Matth. 3.) ¡Zein gutxi dezaketen!

### Aingeru zaitzalleak

Lurrean agertzen geran orduko Jaungoikoak bakoitzari bere aingeru zaitzallea ematen dio bizitza guzira. Gutaz begiratzea beren eginkizunik aundiena bezela daukate. (S. Dionis. Arcop.) Berak lagun egiten digute alde guzietara, ateratzen gaituzte arrixku askotatik eta erakusten digute zer egin, artara eragiñez. Tobias'enak erakutsi zion ari etzekin bidea, arraia- ren agotik atera zuan bizirik, andreagandik bota zuan etsaia ta aren aitari eman zion ikusmena. Lot aterazi zuten Sodoma'tik an etzedin erre ta galdu. Jose deunari lotan esan zion alde egiteko Ejipto'ra ta gero an esan zion noiz etzan arrixkurik itzultzean. Eragotzi nai digute gaiztoa egitea Balaam'i (Num. 22.) edo Pilatos'ei bezala. Aurpegiaren ematen digute gaizki egin ondoan Israel'go semeari bezala. (Judic. 2.)

Estualditan dira gure erakusle Daniel'ekin bezala edo gure bizkortzale onerako Jedeon'ekin, (Judic. 6.) Jesus'ekin Jetsamani'ko baratzen, (Luc. 23.) edo Pablo'rekin itxasoaren erdian, (Act. 26.) bezala.

*Intza'r Damaso A. O. M. Cap.*

## Ama-Birjiñaren Eliz-sarrera



*er jai egiten du Eliz Ama Santak Otsaila'ko bigarrenean?*

Ama-Birjiñaren Eliz-sarrera; Jesusalen'go elizan Jesus jaio ondo- ko berrogeigarren egunean beronekin egin zuan Eliz-sarrera.

*Zertarako da Jai au?* Guri gogorazteko naiz Jesus Aurtxo- ak, ta naiz Ama-Birjiñak Lege santuari zioten begiramendua ta ori gogo onez artzeko ta betetzeko egun ontan eman ziguten ikasbidea. Lege zarrak agintzen zuan emakumeak aurra egitean, mutikoa ba-zuan elizan sarrera egiteko 40 egun betetzean, eta eskeñi bat egiteko bere garbitasunagatik. Aur jaio berria lenengoa ba-zan Jaungoikoari eskeñi bear zitzaion. Jesus ta Maria etzeuden bearturik Lege au betetzera, Jesus Jaungoiko zalako eta Ma-

ria, bere Ama, Ama-Birjiña, ezin garbiagoa zalako. Ala ere gogorik obere-naz bete nai izan zuten, guri apaltasunezko ta uzkurtasunezko alako ikas-bidea utziz. Jesus ta Maria'ren bizitzako gertaera au da Elizak gaurko egu-nean gogoratzen diguna.

*Zer elizkizun berezi egiten da egun ontan?*

Argizarien onespén edo bedeinkazioa. Elizkizun ontan iru gauza berezi dira: Argizarien onespén edo bedeinkazioa,—beroiak kristauei ematea ta azkenean,—eliz-jira edo prozesioa.

*Argizarien bedeinkazioa*

Iru onespén edo bedeinkazio bikañak egiten ditu gure Eliz Ama Santak urtearen buruan; Argizarien au, Errautsarena Austerre Asteazkenean eta abarrena eta erramuena Erramu igandean.

Egun ontan onesten edo bedeinkatzen dira argizariak, argia Jesus gure Jaunaren itxura dalako. Argatik Simeon agure onak bere besoetan artu zue-nean Espiritu Santuaz argiturik esan zion: *erriak argituko dituan argia*.

Eta argizari biztuak obeto izan ditezen Jesus'en itxura Eleizak bedeinkatzen ditu, bedeinkazioaz gauz deuna edo santuak egiñik utziz.

*Argizariak ematekoa*

Argizariak bedeinkatzen diran bezela Apaizak ematen dio kristau ba-koitzari berea eskura. Argizaria ematean Eliz Ama Santak erakusten digu guztiok bear degula artu Jesus, gure gogo animetan; ez talako aski Jesus errien zeruko argitzallea izatea, baizikan bearrezkoa dala bere erakusketaz gure barruak argitzera etortzea ta gure bizia, argi orrek erakusten digun bezelakoa izatea.

*Eliz-jirak* edo prozesioak gogora ekartzen digu gaurko egunean Jeru-salem'go elizan egin zan beste eliz-jira txiki, bost lagunek egiña, Jesus, Ma-ria, Jose, Simeon, eta Ana lragarleak; Ama-Birjiñaren eleizako sarreran Je-sus besoetan zaramala Betiko Aitari eskeiñi zionean. Eliz-jira onek baita ere esan nai du, zeru aldera bide egin bear degula, gure ibillera guztiak Je-sus'en zeruko erakusketaz zuzentzen ditugula. Ala nola illunbetan dabillena erortzeko ta min artzeko arrixkuan bai-dago, bereala zeruko bidean bide-erakusletako Jesus ezteramanak, arrixku aundia daukalako azken onik ez egiteko.

*Noren oroigai da argizagia?*

Jesukristo Gure Jaunarena. Argizagi edo ezko utsa bere gizontasuna-ren itxura da; bere erdiko aria, gizonezko gogo edo animarena; ta pizturik dagoneko bere argitasuna, Jesus'en Jaungoikotasunaren itxura.

*Azkena*.—Egun ontan bedeinkatutako argizagia begiramenduz ta itzal aundiz gorde bear degu Jesukristo'ren itxura dalako ta gauz santua da-lako. Kkristauonak irazeki edo piztu egiten dute ori ostosketan edo turmoi-ka dagoanean, oien kalterik ez izateko indarra dutelako argizagi auek; baita pizten dute batez ere baten azken orduan, iñoiz baño Jesus'en lagun-tza ta argitasun geiago orduntxe bear izaten dalako, ain ordu illun ikaraga-rria da ura ta.



## Aurra ta Jaungoikoa

*Qui cum in forma Dei esset... semetipsum exinanivit... in similitudinem factus Jaungoikoa izanik... ezereztu zuan bere burua, gizonaekoei antz-artu du. Paul. D.*

**M**utill koskorren moltxo bat,  
Arpegi zikin belzturik  
Galtzetan leyo-dutenak,  
Nazareth erdi-erdian  
Jostaka ari dira bizi,  
—Poxpolin, din don binbilin:  
Enauakala billatzen ni,  
Kopetan zulotxo dunak  
Dio bebakar bateri  
—Astoak arrantz; igelak  
Korrok. ¡Y beti ixillik!  
Arrapatzen baut. Pim... pim...  
Leyaz, izerdi-patsetan,  
Arnas estuka ibilli  
Ta ibilli, pim t'etorri,  
Gelditzaka ari dira  
Onuntz-ara beti joka;  
Enak eta dorretxorik  
Eliz-ondoan pir-pir-pir,  
Txir-txir-txir jira-biraka  
Ibiltzen diran bezela.

\*\*\*

Mutiltxo lirañ-lirañ bat  
Besoko atorra gorritz  
Mokoak aistin kendurik.  
Agiri da diadarka:  
«Beko baratza ormatik  
Jauzitzaera goazen, ba,  
Yaia asperturik gaude-ta  
Emen laxter-egiteaz.  
—Ni lenena, dio batek.¡  
Ni gero.—Ni irugarrena.  
Laugarrena... Bostgarrena...  
Emezortzigarrena... arte  
Txori aien eztarriak  
Dagizkite bere ereski (1)  
Bereziak burnaritzen (2)  
Bolikiak (3) dagizkiten  
Erakoak, txukun, zoli,  
Bizidun, ernegarriak.

(1) Nota—(2) Pianoa—(3) Tecla.

Sugearen antz-antзера  
Lerro bat ziar-ziarka  
Mutill kokkorrez egiñik  
Igitzen da poll-polliki.  
—Nik Anderek baño geyo  
—Nik Simonek bai ainbat  
—Nin denak batean aña  
—Guztiok ortik aldegin:  
Lekua zabal-zabalik.  
¡Auxek mutillak! ¡Utikan!  
Dietsa, ikaratuta  
Etxeberriko amonak.

\*\*\*

Orduntxe, bat-batean... !Plast!  
Ta oiui bizi-bizi bat...  
¡¡Simon lerdekatu dek!! Ai!  
¡Ara odolez bustirik!  
Mutiltxoak bildu dira.  
Simonen aldamenean  
Odolezko iturria  
Dario kopet-erditik.  
Ezta, ez, beste labanik  
Arri zorrotz bat baizik.  
—¡Simon, Simon!—otsegiñaz  
Artzen dute gizajoa  
Bere esku-ofetatik  
—¡Illa! Etziok arnasik...  
Aitzen da, denen artetik.

\*\*\*

Ura negarrez, bildurrez  
Au, besteak dardarrez,  
Errira dira guztiak  
Burbei, illun, damuturik,  
Elkarrartean ixillik  
Kale-bera datorrela  
Jesus txairu-zoragarria  
Dakuste belar pillakin  
Eta arkumetxo batekin

—!Oi! Nundik zatozte nundik?

—Jolasten ibilli gera

Ta Simon Benjaminena

Ill da.—¿Nola, nola ori?

—Jauzitzean orma goitik

Arri zorrotzean emarda.

—Nunbait lotan egongo da...

—Lotan da odolusturik

—Goazen arregana, bai,

Lo ote dagon ikustera.

—Etziok inñolaz lotan;

Odol asko ixuri dik...

Bide laburtxo eginda

Beko baratza dira.

Burua autsi-zulaturik

Masall ezañ gorri-gorrik

Argizagi beziñ ori,

Dakuste Simon ill-illik

Bide-ertzean etzanda...

Jesus belaunikatzen da;

Simoni musu-emanik,

Begik txistuz igortzirik

Esaten dio illari:

«Esnatu, jeiki, laguna...»

Eta Simon jeikitzen da

Lo egon balitz bezela.

Eztu buruan zauririk;

Ez atorran odolik.

—Adi zak, diotsa, juan:

Ez berriz igo ormetara.

Aurak belaunikaturik

Begira daude Jesusi.

Onek irribarrez dio:

«Orren, orren bildurtiak

Zeraten, nere lagunak,

Ez al zegoen lotan Simon?»

*Altzo azpitarr Did. A'k. O. M. Cap.*

## Beartsuen ogia ta Antonio Santua

Antonio santuak bere egunetan agertu zuan beartsuendako biotz bigun xamurra. Langille ta bere kopetako izardiaz eguneko ogia atera bear zutenak ikusia zuten beren premi ta estutasunetan errukiorra zala Antonio Anaia ta etzuten uste izaten mirari bat bear ba-zan egingo etzula aiei laguntzeko. Alaxe bere kondairak dakarten ipuia da au. Bein argin batzuekin izketari xalo ta gozo ari zan Antonio Anaia, bere Aita Nagusiak mirariak egitea debekatu zioten ondorean. Ala zegoanean baita argin gizagajo bat, bere gorpuzak perdes egin eta, etxe gañetik erori zan. Baita erortzean otsegin zion Antonio Anaiari esanaz: Antonio, mirari bat egin. Bertan Antonio Anaiak:—itxo-in pixkat: baimenaren eske noaie nere Aita Nagusiagana. Orren eske joan laxterka ta ura atera artean gizona aidean egon zan erori gabe, Antonio deuna etorri ta jeixteko esanaz bere besoetan artutzeraño.

Orra zeñen biotz errukitsua zuan bere egunetakoa esanaz agiri dan bezala.

Gaurko egunean ikusiko baluteke nola dabillen alako beartsu askori jana, jaztekoa ta bear guzia ematen elukete gutxiago esango. Asmazioa da bai, beartsu gizagajoai bear dutena emateko aspalditxo ontan derabillen eginkizuna. Zer bide asmatu du ba? Mirariak egin edo alako laguntza arri-garria Jaungoikoagandik iritxi, beartsuentzat zerpait diru eman nai duanari ta beartsuen ogitako eskenitzen duanarendako. Zenbat mirari edo arrigarri egiten du nonbait ere. ¡Alaxe bakarrik bildu liteke *beartsuen ogitako* bil-tzen dan ainbat!

*I. D. A. O. M. Cap*



# IZONA, NON DEK ZUURTZIA



(Luzaide'n bildua)

(Donosti'ar J. A. Ak. ereskidetua)

Gi - zo - na, non dek zu - ur tzi - a zer ez da -

kik ez - de - la deus i - re bi - zi - a ke bat bai -

zik? i - guin - tzak bi - otz - ez mun - du - a o - noz - ke -

ro e - ri - o - tza dek ur-bil - du - a i - re gan - dik.



## Gizona, non dek zuurtzia

Mundutar, atsegin loietan  
Ondatua,  
Auxe euki zak ire gogoan  
Gogortua;  
Oroi adi il bear aizela  
Azkenean  
Biar, aurki izan aitekela  
Lur barnean.

Aberatsa, ire diruak  
Itxutzen au;  
Agintza zoroez munduak  
Zoratzen au;  
Asi adi txoraldi ortaz  
Lotsatutzen  
Baita benetan eriotzaz  
Bildur artzen.

Gazte zoro, apaindurari  
Ain emana,  
Josia iduki zak gogoan  
Il-obia;  
Eriotza utsalakeriaz  
Dek nausatzen  
Arroputzen atzimateaz  
Duk jostatzen.

Salerosle diruzalea  
ezerk-ere  
Mundu ontan ezin asean  
Inoiz ere;  
Aurki putzu bat emango zaik  
Egongutzat;  
Bi beso lur izango dituk  
Ondasuntzat.


Nekazaria, alper-alperrik  
Aiz nekatzen  
Maiz eriotza duk bet-betan  
Guganatzen  
Azaroan ik bear dituk  
Egin lanak;  
Oinordeak bilduko dizkik  
Arnariak.

Ainbat ersturetan abillen  
Mariñela;  
Laster agian atzemango  
Aute uginak;  
Urpean edo legorrean  
Aiz galduko;  
Bizia zaik, muga danean  
Akituko.

Bat etzayo eriotzari  
Geldituko  
Zorrozkio dio bakoitzari  
Ark elduko;  
Badaramazki erregeak  
Jauregitik,  
Eziduki ta onbearrak  
Etxolatik.



## AGEDA DOATSUA, GARBIA TA LEKUKOA



**A**GEDA Doatsua, Neska Garbia ta Lekukoa, Sizili'an jaio zan, Jesukristo'ren garaiko 230 garren urtekoan, batzuk diotenez Palermo'ko urian eta beste batzuk diotenez Katania'koan, eta uri argi bi oiek berentartzat daukate.

Bere gurasoak oso kristau zintzoak, jatorri argikoak, aberatsak ziran eta oso aziera ona eman zioten. Berez oso ona, argia, garbia, jaieratsua zan, eta gazte-gaztetatik Jesukristo'ri oso eskeñi zan. Zaldun gazte askok beraren eskua eskatu zioten, bere garaiko neska gazterik ederrena ta maitegarriena zalako, baña berak guziai ezetza eman zien, Jesukristo'ri zintzotasuna gordetzearren.

Doatsu garbi onek 21 urte zituan; Jesukristo'ren garaiko 251 garrenean, Erroma'tarren Agintari Dezio biotz-gogorraren *erasoaldi guzierakoan*, Dezio beraren ordekoa ta Sizilia'ko Agintari zan Kinziano biotz-gogorrak, Doatsu au bere aurrera eramateko agindu zuan, aditzera eman zioten bezelakoa ba-zan, bere emaztetzat artzeko asmoan. Doatsu au Palermo'n bi zi zan garai artan, Kinziano berriz Katania'n.

Ageda Doatsuak Kinziano'ren aginduz bere eske joan zirala jakitean, igerri zion zertako izango zan, eta berealaxe Jesukristo'ri bere eskeintza berritz zion eta biotz-biotzetik eskatu zion jarren! bere eskutik ez uzteko, gaitz guzietatik gordetzeko, eta biotz-aunditasun aundiaz Katania'ra joan eta Kinziano'ren aurrean aurkeztu zan. Onek beraren eskua eskatu zion, baña arek ezetza eman zion, Jesukristo'ri eskeñi-ta zegoala ta.

Kinziano biotz-gogorrak Ageda Doatsua garaitzeko gai etzala igerri zionean, Doatsu garbi au emakume galduen etxe batera bialdu zuan eta etxe galdu artako buru zan eta Afrodisia zeritzan atso sorgiñaren mendean jarri zuan, sorgiñ arek beste neska gazte asko galdu zituan bezela, Doatsu au ere galduko zualakoan. Baño oker zegoan.

Afrodisiak alegiñ guziak egiñ zituan illabete osoan gure Doatsua galteko; baña alperrik. Egun bertean beste erasoaldiakin etzuala ezer irabazten ikustean, Doatsu oni esan zion, bere edertasuna, argitasuna ta gañerako ontasunak ezin geiagorano goratu ondorean: *Ageda, Kinziano'rekin ezkontzen ba'zera, Sizilia'ko etxeakoandre izango zera*. Ageda Doatsuak erantzun zion: *Afrodisia, neretzat naikoa da Jesukristo'ren mendeko izatea. Jaungoiko ta Aita guzialtsu ta errukitsu au beti gertu dago bere semeak ondasunez betetzeko, eta zutzaz ere errukituko da, gaitzakeriak utzi ta Beragana onbiurtzen baze'ra. Gurutze batean il zan zuri betiko bitziza ematearren, eta zu betiko eriotzara urreratzen zera. Badakit Agintari bidegabeko orri atsegiñ ematen saiatzen zerala; baña nerekin alperrik nekatuko zera. Nik uskeritzat dauzkat lurreko atsegintasuna*

*nak. Ni eznaute bildurtzen bizitza onetako eramankizunak. Nere zoriontasun guzia da Jesukristo'gatik nere odola ta bizia ematea. Ontzen ezpazera, zure gorputza auts biurtzean, zure gogoa inperuko betiko su-garretara joango da. Badakizu, bada, auxe dala nere erabakia, inñolaz ere aldatuko ez dana. Esaiozu Agintariari, bere biotz-gogortasunak agintzen dion eran nerekin egiteko.*

Afrosiakiak Ageda Doatsua garaitzeko ustea oso galdu zuan eta Agintariari guzi-guzia esan zion. Agintariak orduan Ageda Doatsuari bere aurrrera deitu ta asarretasun aundiaz esan zion bere bizia gordetzeko asmorik ez al zuan. Ageda Doatsuak erantzun zion: *Jesukristo da nere bizia, osasuna ta jabea. Beragatik nere odola ta bizia ematea da nere zoriontasun guzia, Berak bereak neri betiko bizitza ematearren eman zitu-alako, Zuk izango dezu nere gorputzeko bizia kentzeko altasuna, baña ez nere biotzeko sinismena kentzekoa.* Agintariak asarretasun aundiagoaz esan zion: *ixildu zaitez, eta agurtu itzatzu gure jainkoak.* Ageda Doatsuak erantzun zion irri-parrez: *¿Zer jainko dira oiek? Gizonak arrizko ta zurezko gaiakin egin dituzten irudi utsak. Jupiter, zuen kondairak berak dionez, bere gaiztakeriakin lur guzia gaitzbidetu zuana. Benus lotsagabea, bera emaztetzat artzen zu ere lotsatuko ziñakena.*


Agintari biotz-gogorrek erantzupen au aditzean belarrondoko izugarri bat eman erazi ta giltzape illun batera bialdu zuan.

AITA ESKORIATZA

## EZKONTZEKO PRESTAERA

ANDREAREN AZIERA

§ II



**B**AÑO, nai beziñ arrigarria emakumearen azlerran izan arren, ezta osoa izango oso kristaua ta sendoki elizkoia ezpada. Lurrean bide-ra irtengo zaizkion lillurak baño maitagarriagoak, eta bizian topatuko dituan zorigaitzak baño indartsuagoko onbide edo birtute-taldeak animan ezpaditu, ez da gaztea ondo azia egongo. Lillura ta zorigaitzen gañean emakumea jartzen duten onbide edo birtute oiek, egintza oitu ezak, aundiak egiteko egiten dan indar aundiaren urbillekoak diran onbide (birtute) oiek egiazko elizkoitasun sendoak ematen ditu. Orregatik dio Espiritu Santuak Jaunguikoaren aginduak, mandamentuak, emakume santuaren biotzan arri gogorraren gañeko zimenduak bezala dirala. (Eccli. 26, 24.)

Kristauki azia dagon eta eztagonaren artean; sendoki elizkoia dan eta ez-tanaren artean alde aundi-aundia dago. Lenbizikoak badaki, miñak, gurutzeak, eta lanbideak Jaungoikoak gure onerako bialtzen dituan mandatari edo mezulariak dirala; eta eramapenez samintasunak eramaten-jasaten ditu samintasunezko itxasoan ondoratu gabe, ustearen aingurari eutsirik bai-da-



#### Gure errietako olasik ederrena

go; bere gurutzea ez bakarrik aserretu gabe, baizik ausardiz eta lirain bere gurutzea eramaten du, zenbat eta neke geiago Jaungoikoarengatik lurrean ikusi, Zeruian ainbat atsegiñ geiago izango duala bai-daki.

Bigarrena berriz oso bestelakoa da: gurutzearen jakinduri gain-gaño-koaren berririk ez du: oñazearen jakinduririk ez dauka; agindua autsi zuan gizonarentzat legea dan miñ izate orren aurka altxatzen da; ezbearraren agerraldiak, sumintzen du; ondasunetako kalteak eta gaitzak asaldatu egiten dute Zeruaren kontra; ta bere sumiñaldian bere buruaz etsitzeraño iristen ezpada, atsekabearen mendean biotza erori egiten zaio, eta bereak alaitu ta poztu bearrean, siñismen edo fede, kemen, eta ausardiaren gabez etxekoak aspertu ta etsitzeko bidean jarriko ditu. Nekeak eramateko garaia eta miñak gure bizitzean diranenean izaten dira eta ordu estu oietan bizikide kristauak, emakume santuki aziak nekea azpiratutzen du, biotz eroriari ematen dion izkuntz elizkoi-indartsua egiten du, eta zorigaitzaren mendean auldurik dagon anima bizkortzen du.

Ortaz gañera elizkoitasunak badauka gizonaren biotza samurtasunez betetzen duan alako indar eskutu bat; lautik irutan orregatik ikusten degu emakume elizkoiak erruki ta samurtasunez betetako biotza daukala; elizkoia ez danak, biotz legorra; ta Jaungoikogabekoaren bat ba'da, jzoritxarrekoa! arri bezin biotz gogorra, berekoikeria bezin otza, te lokatza bezin loia izango du-ta; onek bere lagun antza gutxien daukan izate iguingarrienetako bat egingo du.

Emakume Jainkogabeak, animan sinismen edo federik ez daukana, biotzeko samurtasunik gabea, zentzunezko abere-antzeko maitetasuna besterik ez du ezagutzen, ez du maite *zentzunai* atsegin zaiona baizik. Ordea emakume jainkozkoak animan ostatuan bezela Jaungoikoa daukanak, maite du *animari* atsegin ematen diona, *egiazko* maitetasunaz, *onbidea*, *birtutea* dan maitasun samur, animazkoa, garbi eta irabaziari begiratzen ez dionaz, lurreko loia baño askoz gorago dabilenaz. Eta erri-eresi batek dion bezela:

Maitasun ontan bilduak  
lurraz gutxi dakite;  
egan zerura dijuaz  
beren kabia an dute.


Jaungoikoagan bere oña daukana, eta onbidea, birtutea ta elizkoitasuna zimendutzat dituana; orretik eman zituan Zezilia, Monika, Paula, Klotilde, Brijida, Ungria'tar Isabel, Juana Frantziska santa, ta beste andre txit bikañak, emakumeen alde asko esan eta ezkontza kristaua zeruko izarrek bezela beren onbide edo birtuten dirdiraz asko goratzen dutenak.

¿Zure biziko laguntzat onbide edo birtute bikañak dituzten oietako bat nai al dezu? O Jose ona, Jaungoikoari eskatu zaiozu; eskatu ta estutu gabe billatu zazu, gure errian Jaungoikoari eskerrak emakume gazte elizkoiak, eta kristauki aziak ez daude urri edo eskas. Zuk nai bezelakoa Jainkoak ematea biotzez nai luke ta eskatzen du beti asko-asko maite zaituen onek.

*Ambrosio Anaia. O. M. Cap.*

## MISIOTAKO BERRIAK

SUMAY - 19 - VI - 30




### ALTZO'TAR MIGEL ANAIA

Nere anai kutun-kutuna: Ara emen Guam'etik bidaltzen dizudan bigarren idazkia, zuri txit atsegin izango zaizuna. Lau illabete badira emen gaudela, mastiaren zatitxu ontan. Txamorroezko eliztia (gramatika) ikasi degu illabete ta erdin Bera'tar Erroman Aitakin. Lenbizi asi giñen Gotzai Jaunarekin; bañan gero agindu zigun berak Erroman Aitakin ikasteko. Elizti berria egiña du berak, oso pollita ta oso erraxa. Egunero ateratzen zituzten kopiak ikaskaiak emateko Jose Luis eta Bernabé Aitak. Ze pozik joaten giñan txamorro ikastera goizean ta atsaldean ain argi ta garbi erakusten zualako. Txamorroak diote iru gizonek bakarrik ondo zekitela beren izkuntza, Torres'tar Juan (emengoa, oso jakintsua izurrian ildakoa, Aita Erroman'en maisua) Jose Palomo Aita (emengo apaiz oso zarra, ele asko dakizkina, erdera, pantzera, ingelera eta beste asko) ta Erroman Aitak. Langai izugurri dauzka maigañean irarritzeko, inprimitzeko batez ere bederatziurrenak. Irarri gabe dago ere kondaira zarra Torres'tar Juan jaunarekin txamorroratua. Etxean

dagoanean ez du makinilla uzten eskutatik eta ez du nai inor juatea izketa-rako.

**Txamorro ikasi ta gero** banatu gaituzte errietara Jose Luis ez beste guziak. Anselmo A. Inarajan'era, andik etorri zan Ugolino Aita Agaña-ra orko apaiza izateko. Ezdu oraindaño bere apaizik izan, Merizo'koa bai-zik. Protestante asko daude erri ortan bere artzayakin ta orregatik bearrez-koa izan da Aita bat orrera bialtzea. Lengo egunean idatzi zidan esanez oso pozik zegoala ta ogei ollo eman ziozkala erriak, Eta ni Sumay-ra, ugarte

Sumay Guam'go eliza.



ontako erririk pollitenera. Erri onek ere ez du izan beñere bere apaiza, Agat'ekoa baizik (Bizente Aita). Gotzai Jauna egondu zan emen bi urte ta geiago, izurri arte. Txit maite du erri au. Denak esan didate zori ona izan de-tela onera etortzean Apaiz izateko. Orain bakarrik naiz «Vicario Coopera-

dor de Sumay.» Orrillaren azkeneko egunean eldu nitzan ontara, erriak eskeñitako tarrantan. Oneratu nintzanean itxoegiten zeuden Jesus'en Biotza-ren Billera edo kongregaziokoak eta Mariaren Alabak ongi-etorria emateko. Denak jantzi onenakin, batez ere Mariaren Alabak; nornaik esango zuan Donostiko señoiritak zirala. Beste igandean etorri zitzaizkidan Jesus'en Biotza-ren kongregaziokoak agur egitera, amar edo ola, bakoitza ollo batekin. Ordainez, beste gauzik ez izan da purruiek eman nizkien. Urrengo egunetan jende asko etorri zait, arraultzak, olloak, arrai eta beste gauz asko eskeñiz. Eta oyen banakari edo administradorea?

**Etxea** oso polita det, amerikano bateri eresia. Ur ugari, dutxa on batekin. Ezpalitz izango ain beroa! Sinestu zadazu emengo beroa oso gogorra dala ta batzutan itotzera zoazela bezela dirudi. Balkoia egiteko asmoan nago. Etxe guzian santo kristo bat bakarrik dauka: Martin anaia zenarena. Mutill batekin bizi naiz, (Mendidu'tar Iñaki) Sukaldean orrek Caña egiten du, eta nere janaria au da; zopa, arraya ta mai-azken edo postreren bat. Aragia gutxitan billatzen det igandetan edo ola, arraia ugari. Edariak eragotzi-ta dau-de ta orregatik ura edan bear. Jaunari eskerrak, badetela izotza (25 lbs) ura ozteko. Nola soldadu asko dagon emen, trak aundi batean ekartzen dute Agan'etik egunero seiterditako. Emengo bizitza lasaitasunean or bezalakoa da jana rian eta beste gauzetan. Emengo amerikano eta jende aberatsa Estados Unidos'etan bezela bizi dira. Tarranta edo automobil ugariemen etabost minutotik bost minutura igarotzen dira nere etxe aurretik. Igandetan batez ere ezin da bidean ibilli, Irun'go-Donosti aldeko bidea dirudi.

Emengo jendea oso ona, oso langillea ta aberatsa. Lansariak edo jornalak oso aundiak, amerikanoak diru asko ditelako. Mezak ugari, lengo egunean meza kantatuagatik 11 dollar. **Eta eliza?** Erriko toki ederrenean jarrita dago. Bañan barrengoa? Juan dan urteko bagio izugarri artatik ez dago gauz zuzenik. Lengo egunean isopoa eskatu nuen elizan ta belar bat eman zidaten. Zein txirua pobrea den. Txit samindu nitzan, batez ere, sagrarioa ikustean, esaiozu Ladis Aitari Corpus Christi elizkizunak oso ederki egin zirala. Bigarren mezan umien Jaun artzea, eta gero *Missa de Angelis* Mariaren Alabak abestua (nik erakutsi ta) Jauna agerian zegoala. Esan nien Maria'ren alabai alik politena jartzeko aldare nagusia, toki bat egiteko Jau-narentzako. Eta orrela egin zidaten. Nola ekartzen zituzten beren sedasko zapiak. Ta atsaldean eliz-jira edo procesioa. 1.<sup>o</sup> umiak b.inderakin, 2.<sup>o</sup> gizonak binaka 3.<sup>o</sup> ogei baño neska geiago aingeruz, 4.<sup>o</sup> Jauna palio eder baten erdian, atzetik Maria'ren alabak kantari. Lau aldare, bañan zein politik. Ez-dezakete ezertxore esan amerikanoak eta protestanteak, oso pozik nago.

Orrillan artu nuan zuk bialdutako "Zeruko argia" oso ederki. Zure neur-titza oso pollita. Uste degu illabetero izango degula bakarraldi bat. Juan dan illabeteen eman zuan Jose Luis'ek konzierto bat Eraentzalle edo Gobernado-rearen etxean. Emengo protestanteak zapalduta utzi ditu. Berri asko bialdu itz gutxitan a, b, c. (onela). Aitari egin diot.—Gorantziak denai batez ere La-dis Aitari. Bernabe'ren eskutitzakin nagola ta guzaz errukitu dedilla.

Goraintziak ikasleai.

*Guam'dik—Altzo'tar Leon O. M. Cao.*

# ADDIK-EMENDIK

## ¡Gogoan artul

Urte guztian gaztigatu digute bein andik, bein emendik eztutela alako edo olako zenbakia artu. Asieran estegu ezango utsegin batzuek guregatik etzirala izango. Baño gero oarturik gaude korreoetako utsegiñak zirala beintzat, guztiak ezpada ere geienak. Alakorik berriz ez ikusi naiez nai dizutegu *mesede* bat eskatu. Zenbakien bat artzen eztezutenean gaztigatu zaiguzute lenbailten eta aldioro.

Gañerakoan guk ezin zuzendu okerrik eta ezin eman esparik Korreotako Zuzentzaleari. Ortarako zuk gasturik gabe gaztigatu zaiguzuten utsegiña, egin ditugu papertxo batzuek ori guri gaztigatzeko. Or jarri zenbatgarren zenbakia etzaizuten joan eta bialduko dizugu bereala.

Papertxo ori sartu karta estalki batean, baño estalki ori itxi gabe, itsatsi gabe ta bialdu zuzenbide onekin: R. P. Administrador de Zeruko Argia.

PP. Capuchinos—Pamplona.

*Zentimo laurden edo kuartoko selloa aski du karta itxi gabe orrek.*

## Bai al da zuen errian Zeruko Argia artu nai lukeanik?

Orri egiozute beste mesede bat; zuei bialtzen dizutegun papertxo orren goiko aldea bete dezala berak eta aski du sobre itxigabea, zentimo laurdeneko sello bat jarri-ta bialtzea guri.

**Oartxo bearrezkoa** Aspaldiko langillien naskaldiagatik ezin iritxi ditugu nai giñuzken edergarri onak zenbakia atera bear dan garaierako. Noizpait ere asiko al zaizkigu zintzo egiten!

## Beartsuen ogia Etxarri-Aranatz'en.

Erri ontako kristau on batzuek ikusirik errian Antonio deunari zaion maitetasuna baita ere erriko askoren laguntza bearra ta premia, ekarri dute Antonio santuaren irudi polit-polit bat beren elizarako ta egin diote bere al-daretxoa. Kutxatil bat jarri dute, biltzen dan diruarekin erriko beartsuai jatekoa ta jaztekoa emateko. Kutxatil orren aurrean dio: «*Beartsuen ogia.*»

Or biltzen danarekin, on dan bezala beartsuei bear dutena emateko autatu dituzte gizon bat eta andre bat, beren zintzotasunaz ezagunak. Iru-garren Ordenako Aita Zuzendariari illabetero emango dizkiote oiek sartu-atera guztien berriak.

Lenengo illabetian 18 duro bildu dira kutxan. Santu edo deunaren irudia ta bere Aldaretxoa ordaindu dituzte oiekin. Emendik aurrera bilduko dan guztia beartsuentzat izango da.

Zenbat on ekarriko dion erri oni bertako *beartsuen ogi onek!*

## Bear diran Eliz-baimenarekin.

|                               |                                   |
|-------------------------------|-----------------------------------|
| * ZERUKO ARGIA . . . . . 2,50 | * Erbesteraiko utsik . . . 3,50 * |
| Itzaldiakin . . . . . 3,50    | Itzaldiakin . . . . . 4,50        |

Iruña'n, Kaputxinoen Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan.